

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA: TERMISOCKS

Negua hasi ahala, herritar askoren egunerokotasuna kaltetu egiten da tenperatu baxuak direla eta. Askok beren bizitzan mugak jarriaz. Gure ustez, denok merezi dugu berotasun eta erosotasuna urte guztian zehar. Hori dela eta, gure galtzerdi termikoak, *Termisocks* izenekoak, aurkeztera gatoz. Neguan zehar ere pauso bakoitzean beroa aurkitzera eramango zaituztenak.

Bilaketa sakon baten ondoren, honelako galtzerdiak aurkitzea ia ezinezkoa dela ikusi genuen. Hortaz, horrelako produktu bat faltan botatzen genuenez eta gizartean oso eragin positiboa izan zezakeela pentsatu genuenez, sortzea erabaki dugu. Ikerketa ugari eginez, gure galtzerdiak kalitate hoberekoak izango direla zihurtatu dugu. Ingurune hotzenetan beroa mantendu ahal izateko.

Termisocks-ekin mundu osoan zehar pertsona askori bizitza erraztea da gure helburua. Esperientzia eroso eta goxoak eskainiz. Herrialde hotzetan negua iristen denean herritarrek asko sufritzen dute hotza dela eta. Beraz, pertsona hauek egunerokotasun erosoago bat izan dezaten sortu dugu proiektu hau.

Galtzerdi termiko hauek testuinguru desberdin ugarietan erabili daitezke; neguko kiroletan, besterik gabe kalera ibiltzera ateratzean, etxean lasai egoteko... Horrez gain, galtzerdi hauek oso baliagarriak izango lirateke zirkulazio arazoak dituzten pertsonentzat.

Bukatzeko, gure galtzerdiek ingurune hotzetan babesteaz gain, erosotasun handiko esperientzian murgilduko ditu erabiltzaile guztiak. Pauso bakoitzean oinak beroak izatearen abantaila aprobetxatuz, neguan ere esperientzia ahaztezinetaz disfrutatuz.

